

# BEREZIA Irunero

IKASLEEN LANAK LH5-DBH



**2026ko  
EUSKARAREN  
HILABETEA**



**Iosu Iguñiz Echeveste**

Irungo Udaleko Euskara  
Ordezkarria

Kaixo, gazte!

Irungo Udaleko Euskara Ordezkarria naizen aldetik, albiste paregabea da berriro ere "Euskararen Hilabetea" ospatzea. Gure hizkuntzak bizi duen egoera zail eta gogor hauetan horrelako ekimen bat antolatzeak arnasa ematen dio euskarari. Aurten ere, euskaraz sortutako lan eder eta kalitatezkoak izango ditugu taula gainean, eta elkarrekin giro atseginean ikusteko aukera izango dugu.

Egitasmoaren helburu nagusia da antolatzen ditugun antzerkien bidez hizkuntza ohituretan eragitea eta euskal antzerkigintzara hurbiltzea edota kontsumitzea. Azken urteetan, euskaraz sortutako antzezlan kopurua handitu egin da, baina oraindik asko dago egiteke. Horregatik, antzerkiak euskaraz ikustera animatu nahi zaituztet!

Aurtengo leloak "Klik Euskarari" erreferentzia egin nahi dio bizi garen mundu digitalizatu honi. Jakin badakit teknologia gu bezain azkar doala, eta euskarak ere bere lekua izan behar duela. Horregatik, egin dezagun guztiok klik euskaraz!

Gainera, euskararen erabilera handitu ahal izateko, zuen konpromisoa eta laguntza behar dut. Euskara erabiltzera animatu nahi zaituztet: lagunekin, kirolean, familian edo aisian. Euskara denok zaindu behar dugu. Euskara guk zaindu behar dugu. Euskara norberak zaindu behar du.

Irungo Euskara Zerbitzuan aurtengo euskarazko programazioa ahalik eta erakargarriena diseinatzen saiatu gara, baina datozen edizioetarako iradokizunen bat baduzue prest nago entzuteko.

Espero dut "Euskararen Hilabetea"-n antolatutako antzezlanekin gozatzea.

Datozen egunetan elkarrekin gozatuko dugulakoan, jaso ezazue nire agurrik beroenak.

**Irunero**

**Argitaratzailea:**

837 Comunicación y Publicidad S.L.

**Maketazioa:**

Maialen Sayans Alberdi

**Lege Gordailua:**

SS-230-94



# aurkibidea

## DUNBOA

- › Astoaren Jolasa 4 or.

## EGUZKITZA

- › Europa 5. or.
- › Sushiaren eboluzioa 13. or.
- › Bakailao gorria 14. or.

## ELATZETA

- › Europa Elatzetan 6. or.
- › Lurra planeta 7. or.

## EL PILAR

- › Agur 8. or.
- › Eskolatik San Martzialera 15. or.
- › Marra bereziak lagun berdinak 19. or.

## LEKAENEA

- › DYA 9. or.

## SAN VICENTE DE PAUL

- › Eskabidea 10. or.
- › Txistekak 16. or.
- › Sare sozialak 18. or.

## TOKI ALAI

- › Adi tailerrak 11. or.
- › Etorkizuneko elikadura olerkia 17. or.
- › Zergatik? 20. or.

## TXINGUDI

- › Euskararen Eguna bertsoa 12. or.

# ASTOAREN JOLASA



## JOKALARI KOPURUA

3 jokalarik edo gehiago



## NOLA JOKATZEN DA?

1. Kartak banatu. Jokalari bakoitzari **lau karta**
2. "1, 2 eta 3" esaterakoan, bakoitzak karta bat **buruz behera** ezkerreko jokalaritari pasa
3. Jokalari batek 4 karta berdin lortzen dituzenean, **eskua** mahai erdian jarri eta **"astoa"** esan behar du
4. Beste jokalariek **eskua** jokalaririk honen **gainean** jarriko dute
5. Eskua jokalaririk gainean jartzen duen azken "A" izango du

1

## HELBURUA

Jokalariek ahalik eta azkarren **lau karta berdin** lortzea (adib., lau errege, lau hiru...)

2



3

## MATERIALA

Karta sorta arrunta

4



5

## PUNTUAZIOA/ZIGORRA

Galtzaileak "A", "S", "T", "O", "A" letrak lortzen dituzenean jokalariek "prenda" bat pentsatuko dute honek egiteko.




Eguzkitzako 6.mailakoek Europa landu dugu eta eraikin nagusien silueta eta itzalekin jolasean, hona hemen emaitza!



Eta 5.mailakoek forma geometrikoak landu ondoren, Espainiako bi eraikin hauek egin genituen. Ba al dakizue zein eraikin diren?

## EUROPA ELATZETAN

Aurreko hiruhilekoan Europa gaia lantzen ibili gara geletan. Gaia borobiltzeko ideiarekin, Europan bisitatu ditzakegu eraikuntza eta leku ezberdinen maketak sortu ditugu, baita beraien inguruko informazioa gureganatu ere.



Europako herrialde, hiriburu, mendi, ibaiak eta eraikuntzak landu eta ezagutzearekin batera, Europan zehar bidaiak antolatzeko agentzia bat ere sortu dugu.

Horrela, herrialde desberdinetan zer bisitatu, non lo egin, zer jan... informazioarekin triptikoak sortu ditugu gure bezeroei banatu ahal izateko.



## LURRA PLANETA

Europa ezagututa, gure planetaren inguruan lanean ere ibili gara. Ozeanoak, kontinenteak, biztanleria... Gauza mordera lantzeko aukera izan dugu, baita eskulanak egiteko ere. Oraingoan, bakoitzak, gure Lurra planeta sortzeko aukera izan dugu.



Lehenengo, puxika bat puztu eta kola eta egunkarietako papera erabiliz, forma eman diogu. Lehortu ondoren, margotu eta berriz ere lehortzen utzi ditugu.

Bukatzeko, barruko puxika lehortu dugu gure planetari forma borobila ematen bukatu ahal izateko.



Seigarren mailako ikasleek bertsoaritzan prestatu dituzten bertsoetako bat aurkezten dizuegu.



LHn egon gara  
gu eta laguna  
oso ondo pasa dugu  
aurtengo jarduna  
gaurkoan guk azaldu  
beharko duguna  
LH guztiak  
azaldu diguna.

Badakigu DBHn  
gazteenak garela  
ta ere irakasle  
berriak daudela  
nahiz eta espero ez  
igotzea nibela  
uste dugu DBH  
zaila izango dela.

Hurrengo urtean gu  
DBHra joanda  
ohean geratuko  
ginake etzanda  
eta guretzat oso  
polita izan da  
azkar pasatu zaigu  
egia esanda.

LHn izan dira  
momentu politikak  
gure irakasleekin  
momentu biziak  
leku bat izango du  
zuentzat bihotzak  
garrantzitsuak izan  
zarete guretzat

## Leka Eneako ikasleak bizitzak salbatzeko ahaleginetan.



Abenduaren 16an DYakoak (Detente Y Ayuda) Lekaenea eskolara etorri ziren gure seigarren mailako ikasleei RCPa egiten erakustera.



Ikasleek oso gustora entzun zituzten azalpenak eta laguntza ematearen garrantziaz ohartu ziren: bizitzak salbatzeko benetan oso baliagarria dela.

Ondoren, praktikatzeko aukera izan zuten eta oso gogotsu jardun ziren.

# SAN VICENTE DE PAUL



## ESKABIDEA

### 6. maila

New Message
— □ ×

---

To     berlinturismobulegoa@gmail.com

---

Subject   Jaialdiari buruzko informazioa

---

Kaixo, Berlingo informazio turismo bulegoko langileak:  
 lan naiz, hamaika urte ditut eta Euskal Herritik idazten dizuet.  
 Datorren maiatzaren hasieran, Berlinen 5 egun pasako ditut nire lagunekin,  
 hiria ezagutu nahi dugulako. Leku turistikoena bisitatzeaz gain, zuen  
 webgunea aztertzen ibili gara eta maiatzaren 3an, jaialdi bat antolatuko  
 duzuela ikusi dugu. Hori dela eta, jaialdiari buruzko informazioa eskatzeko  
 idazten dizuet, hain zuzen ere.

Turismoko webgunean ez dugu egun horren planifikazioa inon aurkitu eta  
 zenbait zalantza ditugu: zer ordutan den egitaraua ? Zer egongo da  
 bazkaltzeko? Zer jolas mota antolatuko dira?...

Horregatik, ahal baduzue jaialdiaren egitarau zehatza bidaliko zenigukete ?  
 Egia esan horiek nire lagunaren kezka dira: niri kezkatzen nauena beste gauza  
 bat da. Nik jakin nahi nuke nire adineko gazteentzat jardueraren bat  
 antolatuko duzuen eta zer ordu arte izango den jaialdia.

Oraingo besterik ez, zuen erantzunaren zain gelditzen naiz.

Agur bero bat Euskal Herritik.

Laster arte,

△   📎   😊
🗑️   ▾
SEND

Idazmena



## ADI TAILERRAK

Aurten eskolan berrikuntza interesgarri bat daukagu: ADI TAILERRAK!

Tailer hauetan pentsaera konputazionala lantzen dugu.

Ba al dakizu zer den pentsaera konputazionala?

Arazoak modu logiko eta eraginkorrean ulertzeko eta soluzioak bilatzeko gaitasuna.

Hilabetean behin taldeka tailer ezberdinak egiten ditugu. Urtarriletik aurrera gurasoak ere gonbidatu ditugu eta tailer hauetan parte hartuko dute gurekin batera. Ikusi ikusi zertan gabiltzan!


- 3D inpresorak erabiltzen ikasten ari gara, begira ze irudiak sortu ditugun!



- Scratch programa ere erabiltzen dugu!



- Mahai jolas ezberdinetan jolastuz primeran pasatzen dugu!



2025/12/03

## EUSKARAREN EGUNA TXINGUDI IKASTOLAN

- Abenduaren 3an Euskararen eguna ospatu genuen eta bertsotan aritu ginen.

*“Arratsalde on denoi  
gatoz kantatzea  
Nahiko genuke zuek  
gaur ez aspertzea  
Asko eskertzen dugu  
hona etortzea  
Espero dugu denek  
ondo pasatzea.*

*Hementxe bukatzen da  
gaurko bertso-jasa  
Hau guretzat izan da  
oso saio erraza  
Zuekin hartu degu  
bertsotan arnasa  
Hoberenak zarete  
agur ta ondo pasa.”*



TXINGUDI  IKASTOLA

## SUSHIAREN EBOLUZIOA

Baziren behin Mayumi eta Yuki izeneko bi neska. Mayumi eta Yuki oso lagun onak ziren eta Mayumiren etxean pelikula bat ikusteko geratu ziren, larunbatero bezala. Pelikulan mutil batek lurretik altxor bat atera zuen eta neskek ez zuten sinistu altxorrak lur azpian zeudenik.

Pelikularen erdian aspertu ziren eta buelta bat ematera joan ziren. Basora iritsi ziren eta pelikulan gertatzen zena gogoratu zuten. Brometan lurra pala batekin zulatzen hasi ziren eta sushi zati bat aurkitu zuten. Ez zekiten zer zen, orduan robot bati zer zen galdetu zioten. Robotak ez zuen ezer erantzun, eta neskak konturatu ziren robotak oinarrizko gauzak bakarrik zekizkiela baina gauza garrantzitsuagoak ez. Berritu behar zirela esan zuten dudarik gabe.

Egun batzuen ondoren, robot berriak zeuden, eta berriz zer zen galdetu zioten bati. Duela urte askoko janari bat zela esan zien, 2027tik ez zituztela sortu gehiago. Orduan etxera bueltatu ziren eta sushia sukaldatzen saiatu ziren. Garai horretan sushiaren osagaiak ez zeudenez ez zuten sukaldatzea lortu. Robotari sukaldatzea eskatu eta prest zegoen.

Sushia aurkitu zuten lekura bueltatu ziren eta berriz lur azpian sartu zuten. Urte asko pasa ziren eta sushia fosil batean bihurtu zen eta zientzalariek ikertu zuten. Munduko fosil zaharrena zela esan zuten eta Guines Record liburuan idatzi zuten.

MALEN SANCHEZ (DBH 1, EGUZKITZA BHI)

## BAKAILAO GORRIA

Bazen behin Mikel izeneko txef bat, bere jatetxea Donostian zegoen. Etormi deitzen zen jatetxea eta robotak banatzen zuten janaria, izugarria zen. Etorkizuneko janaria egitea gustatzen zitzaion.

Egun normal batean sukaldean zegoen sukaldatzen bere plater berria. Bapatean, Rigoberto izeneko sukaldari famatua etorri zen. Mikel harrituta berarengana joan zen. Urduri galdetu zion:

- Jauna, zer nahiko zenuke jateko?

Gizonak seriotasunez erantzun zion:

- Azenario krema distiratsua eta bakailao gorria, mesedez.

Minutu batzuk pasata, robotak janaria eraman zion Rigoberttori. Mikelek bere aurpegia ikusten ari zen jaten zuen bitartean. Lehenengo seriotasun aurpegia jarri zuen, baina gero janaria dastatu eta izugarri gustatu zitzaion. Rigoberto alai joan zen bere etxera. Mikel oraindik alaiago joan zen robotei berri ona ematera. Mikelek esan zion;

- Beno, dena ondo atera da, ezta?

Robot batek bere aurpegi digitalarekin barre gaizkile bat egin zuen. Mikelek esan zion robotari;

- Zerbait gertatzen da?

Robotak erantzun zuen;

- Ez, ez.

Bapatean jatetxeko mugikorra soinua egiten hasi zen. Mikelek telefonoa hartu eta Rigoberto gorria zegoela esan zion. Mikelek urduri pentsatu zuen bakailao gorriagatik izan zela.

Sukaldera joan zen osagaiak errebisatzera eta huts egiterik ez zegoen. Rigoberto haserre joan zen Etormi jatetxera eta esan zion:

- Zer gertatzen zait!!

Mikelek urduri esan zion:

- Barkatu baino errebisatu ditut bakailao gorriaren osagaiak eta ondo zeuden.

Mikelek berriz pentsatu eta konturatu zen, robot bat izan ahal zela. Rigoberttok haserre esan zion:

- Orduan, zein izan da?

Mikelek:

- Uste dut jatetxe honetan kamerak daudela.

Biak kamerak errebisatzera joan ziren. Ikusi eta robot bat izan zela konturatu ziren! Orduan Mikelek robotak kendu zituen eta janaria pertsonak ematea erabaki zuen. Rigoberttok Mikelek prestatutako edabe magikoa edan eta sendatu egin zen.

NAHIA GARCIA (DBH 1, EGUZKITZA BHI)



Udazkenean, DBH1eko ikasleek ibilaldia egin genuen, ibilbide zehatz bateko informazioa eta argazkiak bildu genituen. Informazio hau Eremukako proiektuan gida bate egiteko erabili genuen.

### ESKOLATIK SAN MARTZIALERA

Eskolatik Santa Elena ermitara: Eskolatik San Juan enparantzara joateko, Arantzate jauna kaletik abiatuko gara eta udaletxean argazki batzuk egingo ditugu. Udaletxetik eskuinera igaroko gara eta San Martzial aldapatik jaitsiko gara, Urdanibia plazara joateko.

Urdanibia plazan argazki batzuk aterako ditugu eta Urdanibiako eskulturari ere argazkiak egingo dizkiogu. Aurrera egingo dugu eta Santa Elena kaletik abiatuko gara, Santa Elena ermitara iritsi arte.

San Martzialerako bidea: San Martzialeko ibilbidera abiatzeko, Gaspar Montes Iturrioz kaletik igaroko gara. Geroago, Aldapa pixkanaka igoko dugu, Aldabe baserrira iritsi arte. Baserri hau, Erdi Arokoa da eta baliozko arkeologia eremua dauka. Aldapa igotzen jarraituko dugu eta San Martzial mendira iritsiko gara. San Martzial mendia eta bertako baseliza: San Martzialera iristean, eskuinean dagoen Aldapa motza igoko dugu baselizara iritsi arte.

Baselizaren ondoan San Martzialeko begiralekua dago eta hortik Txingudiko badia ikusten da.

MARTINA ROCHA GARCÍA  
EL PILAR – DBH1



-Aita aita! Eskolan “despistatua”  
deitzen didate!

-Gazte, hau ez da zure etxea!

Kauan Andrade (1.DBH)



Zer esaten dio hacker batek  
berak aldatuko ordenagailu  
bati?  
Modifikatu haut!

Zyad Hallou (1.DBH)




Zer esaten dio fideo batek  
besteari?  
-Nire gorputzak saltsa behar  
du!

Joaquín Cuervo (1.DBH)



Zergatik joan zen ordenagailua  
medikuarengana?  
Birus bat zuelako!

Oscar David Lopera (1.DBH)



## ETORKIZUNeko ELIKADURA OLERKIA

25 urte barru  
janari asko batu  
Janari hori sukaldatu  
Pobreziarekin bukatu!

Dirua ez delako existituko, ezta kotxerako  
Denak lan egingo dugulako  
Munduko ongizaterako  
Pelikula politen antzerako

Mundu hori lortzeko  
Denak izan behar dute zati bihotzeko  
Janari goxoa sukaldatzeko  
Eta zientzia jakiekin gu babesteko

Zientzia janaria  
Egingo dit tripa-andia  
Eta azkenean izango da nekatia  
Ez da osasuntsua izango zeren a ze kakalarria!

Konturatuko gara  
Zientzia izango dela pasatutako moda  
Betiko janaria jango dugu jada  
Baina gutxi gelditzen bada?

Beste gauzak jaten jarraituko dugu  
Adibidez gure inguru  
Eta errezeta berriak idatzi gure liburu  
Hori izango da gure helburu

Baina nola egingo gara hazi?  
Denak ikasten hasi  
edo denak pobreziarekin bukatzen ikasi  
ai nola egin dizuedan nahasi

Lehenengoa da etorkizuneko jakietan pentsatzen hastea  
Azkenean erritmo honetan jaki gabe geldituko gara eta ez dugu izango zortea  
Orain aldatzeko garaia da zeren gu gara oraindik txikiak eta ikasleak  
Bestela ez gara izango besteentzako irakaslea

### Iritzi artikulua: **Sare sozialak**


Gaur egungo gizartean, sare sozialak gure eguneroko bizitzaren parte bihurtu dira. Gazteek zein helduek erabiltzen dituzte komunikatzeko, informazioa aurkitzeko etab. Hala ere, sare sozialek alde onak eta txarrak dituzte.



Alde batetik, sare sozialek jendea elkartzen dute. Lagunekin harremanetan egotea errazten dute, distantzia handia egon arren. Gainera, informazioa azkar zabaltzen da, eta gai askori buruz ikasteko aukera ematen dute, bideoak, argazkiak edo iritziak partekatzeko aukera emanez.



Horretaz gain, klasean irakurritako testu bati esker, konturatu ginen inklusio tresna bat ere badela. Inork ez daki mugikorraren beste aldean dagoen pertsona horrek aniztasun funtzionala duen, mugikortasun arazoak dituen edo itsua den. Hor guztiak berdinak gara.



Hala eta guztiz ere, sare sozialek arazoak ere sor ditzakete. Denbora gehiegi pasatzea ohikoa da, eta horrek ikasketetan edo harreman pertsonaletan eragina izan dezake. Gainera, konparazioak, irainak edo presio soziala ere ager daitezke, eta horrek autoestimuan kalte egin dezake.

Ondorioz, esango nuke, sare sozialak tresna erabilgarriak direla, baina arduraz erabili behar direla. Oreka bilatzea da gakoa: onurak aprobetsatu, baina arriskuez jabetuta egon.

Euskararen Nazioarteko Egunean, DBH4 mailako ikasleak beraiek sortutako ipuina kontatzera joaten gara Lehen Hezkuntzako 1 eta 2 mailetara.

### **MARRA BEREZIAK LAGUN BERDINAK**

Bazen behin, Asiako jungle tropikalean tigre berezi bat. Ez zen besteak bezalakoa, desberdina zenez inguruko tigre guztiek alde egiten zuten, baina bere familiak onartu zuen. Thor izendatu zuten.

Sei urte igaro ondoren...

Thor jolastera atera zen, normalean bakarrik jolasten zen, baina beste tigre batzuk ikustean ea jolas zitekeen galdetu zien. Beste tigreek ez zioten kasurik egin eta Thorrek berriro galdetu zuen. Oraingoan barrezka hasi ziren eta Thor negarrez hasi zen. Korrika amonarengana joan zen eta amonak lasaitu zuen. Lasaitutakoan, amonari dena kontatu zion. Amonak Thorreri irakatsi zion azalaren koloreak ez gaituela definitzen.

Amonarekin, beste tigreengana joan zen. Thor oso urduri zegoen, ez baitzekien zer egingo zuten. Tigreak aurkitzean, ihes egiteko desioa sentitu zuen baina amonak beraiekin hitz egitera animatu zuen.

Amona eta biak hurbildu eta amonak ondorengo irakaspena egin zien: arrazakeria oso txarra da. Beste tigreak nola senti zitekeen ulertu zuten. Thor asko poztu zen, lagun egin ziren eta berehala jolasten hasi ziren. Inork ez zuen gehiago barrerik egin!!!

Marc Barriga-Jon Aristizabal-Endika Moro-Sofia Gurrutxaga  
El Pilar Ikastetxea DBH4



## ZERGATIK?

Duela urte eta erdi, nire bizitza oso desberdina zen; ez nuke inoiz pentsatuko aldaketak hainbeste izango zirenik. Ni, Onditz deitzen naiz eta nire bizitzako gauzarik garrantzitsuena nire lagunmina da, beno, duela hilabete batzurarte. Unai, betidanik egon da nire ondoan, 2 urte genituela ezagutu genuen elkar haurtzaindegian. Baina gauzak aldatzen hasi ziren...

Azaroa zen, egun euritsu bat. Etxeko telefonora deitzen ari ziren, Unai zen:

- Aizu, Onditz, zertan ari zara?.- Esan zidan doinu txar batekin.
- Ba etxeko lanetan, zergatik?
- Ez didazu idatzi egun guztian, kezkatuta nago, jada ez zaizu axola zure lagunmina, ezta?
- Ez da hori Unai, oso lanpetuta nago, gero deituko!

Unai telefonoa moztu zidan, ezer esan gabe. Azkenaldian asko haserretzen zen ez banion idazten edo ez baginen geratzen.

Ostirala iritsi zen, eta, gainera, lau eguneko zubia geneukan. Unairekin gelditua nengoen arratsaldeko seitarako. Bat-batean mugikorra dardarka hasi zen. hartzerakoan konturatu nintzen seiak hamar gutxi zirela, berandu iritsiko nintzen. Banekien Unai haserretu egingo zela, baina ez nekien zein punturarte iritsiko zen bere amorrua. Seiak eta zazpitan iritsi nintzen, Unai urrutitik ikusten nuen. Ez dakit zergatik, baina momentu batez beldurra sentitu nuen. Aurrean nuen Unai, ez zirudien oso pozik:

-Zertan ari zara Onditz? Beti berandu, beste norbaitekin geratua zinen hala?- Unai besotik heldu eta tira egin zidan. Ez nekien zer egin, eta hurrengo esan nion:

- Aizu aski da! Ez naiz zure jostailutxo bat, nik ere sentimenduak ditut, ez daukazu eskubiderik niri horrela tratatzeko.- Damutu egin nintzen hori esateaz. Bere hurrengo mugimendua zaplazteko bat izan zen.
- Ez hitz egin niri horrela, zu nire lagunmina zara.

Ixilik geratu nintzen, zer esan behar nion? Ez nintzen ausartu ezer gehiago esatera. Zergatik? Zergatik niri? Bere lagunminari? Zergatik ez nion ezer esan? Zergatik ez nuen ezer egin?

Egun hartatik, nire pentsamendu asko aldatu ziren, Unai garrantzitsua izan arren, mina egiten ari zait eta ausardia behar dut hau mozteko. Batzuetan indarkeria gutxien espero duzunetatik iristen zaizu, eta min asko egin arren, ezin da onartu.

IHINTZA ANGULO BERMUDEZ

DBH 4, TOKI ALAI



# 2026

# SOLAS JOLAS

## Udaleku irekiak

**AURREINSKRIPZIOA ZABALIK**

Martxoaren 2tik 13ra bitartean

[www.irun.org](http://www.irun.org)